



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko irailaren 4a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratu dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboan igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko abuztuaren 27an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren

I

2020ko martxoaren 11n, COVID-19 izeneko gaixotasuna dela-eta, Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoko larrialdi egoera deklaratu zuen, eta nazioarteko garrantzia eman zion.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Deklarazioak Estatuko lurralde osoari eragin zion, hasiera batean hamabost egun naturaleko epean, eta, ondoren, sei luzapen onartu ziren, Diputatuen Kongresuak baimenduta.

Alarma egoera luzatzen duen ekainaren 5eko 555/2020 Errege-dekretuak, 5. artikuluan, xedatzen du normaltasun berrirako trantsizio planean aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, dagozkion probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan

alarma egoeran ezarritako neurriak ondorioz gabe geratuko direla. Gainera, 6. artikuluan araberak, autonomia erkidegoak dira erabaki dezaketena, osasun eta epidemiologia irizpideei jarraituz, beren lurraldeetan 3. fasea gainditu dela eta, horrenbestez, "normaltasun berrian" sartuko direla.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoak, prebentzio neurriak hartzen ditu osasun krisiaren bukaera ofizialki deklaratzeko denera arte. Zentzu horretan, autonomia erkidegoen eskumenen esku uzten du aipatu neurriak ezartzea.

Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratu zen, eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurri batzuk eman ziren, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Aipatutako erabakiaren 5. puntuan xedatzen denez, bertan ezarritako prebentzio neurrien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiten da, unean uneko epidemiologia eta osasun egoerara egokitzen direla bermatzeko.

II

Uztailaren 22ko 7/2020 Foru Lege-dekretuaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk onetsi ziren koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Foru-lege dekretu hori Nafarroako Parlamentuak baliozkotu zuen 2020ko uztailaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, eta foru lege proiektu

gisa izapidetzea erabaki zuen. Xede horretara bideratzen da foru lege hau.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da ohiz kanpoko presako neurri batzuk hartzea koronabirusak (COVID-19ak) eragindako osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren, ikusi baita egun hauetan epidemiak bilakaera okerra hartu duela Nafarroako Foru Komunitatean.

I. TITULUA

Ohiz kanpoko neurriak hezkuntza arloan

2. artikulua. Irakaskuntza publikoko eta pribatu-itunduko oinarritzko irakasleen lan-baldintzak.

1. Hezkuntza Departamentuak jarraituko du betetzen Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna, 2022ra arte indarra duena, eta bermatuko du bertan jasotzen diren honako neurri hauek betetzen direla:

a) 2020/21 ikasturtetik aurrera 57 urtez gorakoentzat irakasle lanaldia murriztea 3 saiotan (4 saiotan Haur Hezkuntzan), zuzeneko irakaslanaren ordez lan pertsonala ezarrita, ordainsarrietan murrizketarik izan gabe. Ordu horiek ikastetxeari esleituriko orduekin berdinduko dira. Murrizketa hori orientatzaileei ere aplikatuko zaie. Langile horiek ez dute jolasaldietan zaintza-lanetan aritu behar. Murrizketak ikasturtearen hasieratik ezarriko zaizkie urteak abenduaren 31 baino lehen betetzen dituztenei.

b) 2020-21 ikasturtetik aitzina, daudenak baino ordu gehiago esleituko dira ikastetxeetako zuzendaritzako eginkizunerako, Itunaren I. eranskinaren arabera.

2. Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen oinarritzko lan baldintzek jarraituko dute izaten, guxtienez ere, honako honetan biltzen direnak: Oso-tara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren eta Nafarroako ikastolen sektoreko Akordioa, Nafarroako Gobernuak Nafarroako 2017an irakaskuntza pribatu-itunduaren sektoreko ikastetxeen titularrekin eta enpresaburuekin eta sindikatuarekin sinatua. Hortaz, 2020ko ekainaren 30eko erabakiari gehituko zaio honako xedapen honetan ezartzen dena:

a) Akordio honek indarra hartzen duenetik 57 urte betetzen dituzten irakasleek eskubidea izanen dute astean zuzeneko irakaslanaren genienero ordutegian bi irakastordu murrizteko, harik eta erretiroa hartu arte. Murrizketa aplikatuko da eskubidea sortzen den egunean, alegia 57 urte bete-tzean.

Gutziz aplikatzeko denean Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren "Erretiro partziala" 166. artikuluan bildutakoa, honako hau aplikatuko da: 57 urtetik erretirorako adinera arteko epean irakasleak betetzen baditu Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren "Erretiro partziala" izenburuko 166. artikuluan bildutako baldintzak, erretiro aurreratu partziala hartzeko adinari eta gainerako baldintzei dagokienez, bi ordu horien ordez lau ordu izanen dira erretiro aurreratu partziala hartzeko aurreikusten den adinaren aurreko lau urteetan.

Behin eskuratuta erretiro aurreratu partziala hartzeko adina eta eskatutako gainerako baldintzak, murrizketa aplikatu ahalko da baldintza guztiak eskuratu diren ikasturtea bukatu arte.

Ezertan ukatu gabe, oro har, orduen murrizketa baldintza beretan dauden langile guztiei aplikatzeko beharra, ikastetxe bakoitzean taldeen eta arloen antolaketak hala eskatzen badu, neurria modu heterogeneoan aplikatu ahalko da, ikastetxean murrizketa globala mantenduz gero. Kasu horretan zuzendaritzak irakasleen ordezkaritzari informatu behar dio.

b) Hezkuntza Departamentuak lanaldi partzialeko kontratu bat onartuko du, eta bere gain hartuko du Gizarte Segurantzako kotizazioaren kostua, zeina izanen baita lanaldiaren eta lan-sariaren murrizketa bat, indarreko legediaren arabera, kontratatutako irakasleentzat, ordainketa eskuordetuan sarturik, une bakoitzean indarrean dagoen legediari jarraikiz erretiro partzial aurreratuari heldu nahi badiote; aipatu lanaldiari dagozkion ordainsariez gain, gehigarri bat ordainduko zaie, zeinak bermatuko baitu, Gizarte Segurantzatik jasotzen dutenari gehituta, guztira jasoko dutena txikiagoa ez izatea ordainketa eskuordetuan izanen luketen lanaldiarekin legokiokeena baino. Edonola ere, ez zaio ordainduko beste zuzendaritza-osagarririk edo koordinazio didaktikokorik erretiro osoa hartu arte.

Lehen xedapen gehigarria. Ikasturtea hasi aurretik ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle eta langileei baheketa egiteko plana.

Nafarroako Gobernuak plan bat prestatu eta abiaraziko du ikasturtea hasi aurretik baheketa egiteko ikastetxe eta unibertsitateetako ikasle eta langileei, birusaren transmisioa murrizteko eta agerraldi berriei aurrea hartzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. Adierazleak eta helburuak ikastetxeetan eta unibertsitateetan ikasturtea antolatzeke ikuspegiaren aldaketarako.

Nafarroako Gobernuak adierazleak eta helburu objektibo eta gardenak definitu eta argitaratuko ditu, zeinek justifikatuko baitute ikastetxeetan eta unibertsitateetan 2020/21 ikasturtea antolatzeke ikuspegiaren aldaketa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuaren 12. artikuluan jasotako neurriaren norainokoa.

Abuztuaren 17ko 8/2020 Foru Lege-dekretuak ohiz kanpoko neurriak onesten ditu Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko; 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie bakar-bakarrik agindu horretan aipatutako langileei, betiere betetzen duten osasun lanpostuari aplikatzekoa ez bazaio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, eta bakar-bakarrik konpentsatzeko aipatu langileek 2020ko martxo, apiril eta maiatzean egin dituzten aparteko orduak.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Uztailaren 1eko 13/2020 Foru Legearen 3. artikulua eta II. eranskina aldatzea. Lege horren bidez 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzen da, Nafarroako Toki Ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko.

“3. artikulua. Nafarroako toki entitateen titularitasuneko hiriko garraio publikoko zerbitzuei laguntzeko transferentzia arrunten aparteko funtsa.

1. Nafarroako toki entitateen titulartasuneko hiriko bidaiari-garraio publikoko zerbitzuei laguntzeko transferentzia arrunten aparteko funts bat sortzen da, xedea duena haiei finantzaketa handiago ematea COVID-19aren krisiaren ondorioz izan duten defizit gehigarria konpentsatze aldera, alarma egoeraren indarraldian eta 2020. urtea

amaitu arte. Funtsa 2019ko ekitaldian zerbitzu horiei dagozkien tarifen bidezko diru-sarreraren arabera banatuko da.

2. Funtsak milioi bat euroko zuzkidura izanen du, “COVID-19 Aparteko funtsa, bidaiarien hiri garraioaren defizit gehigarria” izeneko 211001 21200 4600 942107 aurrekontu-partidaren kargura.

3. Transferentzien onuradun izanen dira hiriko bidaiari-garraio publikoko zerbitzuen titular diren udalak eta mankomunitateak.

4. Hiriko garraioaren zerbitzua ematen duen toki entitate bakoitzari finantzaketa esleituko zaio garraioaren eskariaren jaitsieragatik izandako tarifen bidezko murrizketari begira, hori izan baita gertatu den defizit gehigarriaren arrazoi nagusia.

Toki entitate bakoitzarendako esleipena eginen da 2019an hiri garraioaren zerbitzuari dagozkion tarifen bidezko diru-sarreraren zuzeneko proportzioan, behin kenduta, kasua bada, aipatu ekitaldian hura finantzatzeko Nafarroako foru Administrazioetik, Estatuko Administrazio Orokorretik edo Europar Batasuneko erakundeetatik jasotako dirulaguntzak.

5. Mankomunitate onuradunek jasotako zenbatekoak bideratu beharko dituzte zerbitzuari atxikitako udalerriek 2020an zehar emandako zerbitzua finantzatzeko xedearekin mankomunitateei egindako ekarpenak minoratzera.

6. 2020ko urriaren 15a baino lehen toki entitate interesdunek Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari ziurtagiri bat aurkeztu beharko diote, 2019an tarifen bidezko diru-sarreraren guztizko zenbatekoa adierazten duena eta halaber, kasua bada, zerbitzua finantzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik, Estatuko Administrazio Orokorretik edo Europar Batasuneko erakundeetatik jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, foru lege honen II. eranskinean jasota dagoen ereduaren arabera.

7. Toki entitate bakoitzari dagokion zenbatekoa ordainketa bakarrean pagatuko da, 2020ko azaroaren 15a baino lehen, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ebazpen baten bidez.

8. Zenbatekoak ordaindu ondoren soberakin baldin badago, Toki Ogasunek Nafarroako Tributueta duten Parte-hartzearen Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinari gehitzeko baliatuko da.

II. ERANSKINA
 ZIURTAGIRI EREDUA TRANSFERENTZIA
 ARRUNTEN APARTEKO FUNTSA, BIDAIARIEN
 HIRI GARRAIO KOLEKTIBOAREN KUDEAKE-
 TAN SORTUTAKO DEFIZIT GEHIGARRIA
 APALTZEKO

IZEN-DEITURAK: (TOKI ENTITATEAREN
 IZENA)(e)ko/ngo UDALEKO idazkaria

ZIURTATZEN DUT:

1- Toki entitate hau hiriko bidaiari-garraio publi-
 koko zerbitzuaren titularra dela.

2- 2019an hiriko bidaiari-garraio publikoko
 zerbitzuari dagozkion tarifen bidezko diru-sarreren
 guztizko zenbatekoa _____ euro
 dela.

3- 2019an zerbitzua finantzatzeko Nafarroako
 Foru Komunitateko Administrazioak, Estatuko
 Administrazio Orokorretik edo Europar Batasune-
 ko erakundeetatik jasotako dirulaguntzen edo
 transferentzien _____ zenbatekoa
 _____ euro dela.

Eta behar diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri
 hau egiten dut, (TOKI ENTITATEA)(e)ko/ngo alka-
 teak/presidenteak ontzat emanik, (URTEA)(e)ko
 (HILABETEA)aren EGUNA(e)an”.

Azken xedapenetako bigarrena. Jokoari
 buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen
 hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da.
 Honako testua izanen du:

“Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

Xedapen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean
 argitaratzen denetik sei hilabeteko epean ez da
 eskaerarik onartuko eta ez da baimenik emanen
 joko edo bingorako areto edo apustuatarako bera-
 riazko lokal berriak ustiatzeko.

Era berean, ez da eskaerarik onartuko, ezta
 ebazpenik emanen ere, baimenaren bideragarritasunari
 buruzko aurretiazko kontsultak egiteko.

Halaber, ez da eskaera berririk onartuko ez eta
 baimen berririk emanen Joko makinaren Erregela-

mendua onesten duen uztailaren 31ko 181/1990
 Foru Dekretuaren 10. artikuluan aipatzen diren
 lokaletan joko-makinak eta apustu-makina lagun-
 garriak jartzeko ere, salbu eta azken horren arra-
 zoia bada ostalaritza-lokalaren titulartasuna alda-
 tzea”.

Azken xedapenetan hirugarrena. Nafarroako
 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko mar-
 txoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzea.

Izena aldatzen da gastuen aurrekontuko “(E)
 Armañantzasko el Sol kalearen zoladura eta euri-
 uren sarea” izeneko 210001 21300 7609 261600
 partida, 98.000 euroko gehieneko zenbatekoare-
 kin eta Armañantzasko Udala onuradun duena,
 halako moduan non “(E) Armañantzasko La Plaza
 kalearen zoladura eta euri-uren sarea” deituko
 baita.

Azken xedapenetan laugarrena. Ondare
 eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen
 gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu
 Bategina aldatzea.

Paragrafo bat gehitzen zaio Ondare Eskualda-
 keten eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaine-
 ko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina-
 ren 35.I.B).26 artikuluari (apirilaren 26ko 129/1999
 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako
 testu bategina), testu hau izanen duena:

“Mailaz mailako kuota hori aplikatuzetik salbue-
 tsita gelditzen dira, orobat, hipoteka mailegu eta
 kredituen luzamenduak eta hipoteka bermerik
 gabeko errentamenduen luzamenduak formaliza-
 tzeko eskriturak, turismoaren sektorearentzako
 luzamendu hipotekarioa aplikatzearen ondorioz
 gertatzen direnean (uztailaren 3ko 25/2020 Errege
 Lege-dekretuaren 3. artikulutik 9.era bitartekoetan
 arautua)”.

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra har-
 tzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
 an argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaraz dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak 2020ko irailaren 2an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaraz dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea. Honako hau du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren bidez Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaraz dezan Iruñeko espetxea hartzen zuen orubea (edo horren barruan zehaztu beharreko gune bat), Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko abenduaren 26ko 29/2018 Foru Legea betez.

2. Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren bidez Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiari eska diezaion, Iruñeko Udalak bere garaian egin zuen legeaz, espetxearen honakinek eman diezazkion, espetxea egon zen lekuan jar daitezela berriro.

3. Iruñeko Udalarekin lankidetzan alait lasterren jar dezan espetxearen atea orubearen barruan erabakitzen den lekuan.

4. Iruñeko Justizia Jauregiaren handitzean Memoriaren Tokiaren izaera jaso dadin, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak, Iruñeko Udalarekin hitzarmena egin ondoren, hura kokatzeko aurreikusten duen orubeari dagokiona".

Iruñean, 2020ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko abuztuaren 27an egindako bileran, baliozkotu zuen 8/2020 Foru Lege-dekretua, abuztuaren 17koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurriak onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean COVID-19aren kasu positiboen igoerak eragiten duen arrisku bereziko egoerari erantzuteko. Foru Lege-dekretua 2020ko abuztuaren 18ko 184. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko abuz-

tuaren 25eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

